


Xabier Martin kazetariak *Berria*n idatzitako artikulua bat irakurriko duzu.

Egitekoa

Irakur ezazu artikulua, eta ondorengo orrian aurkitu testutik kendutako zatiak. Idatzi testuko zatien **letrak laukietan**, adibidean egiten den bezala.

Sackletonen Whiskiaren bila



Ernest Henry Shackleton irlandarra (1874-1922) Hego polora inor baino lehen iristen saiatu zen, baina ez zuen lortu. 1907an *Nimrod* itsasontzian abiatu zen *Farhest South* espedizioan, ____0____. Negu gorria eta janari falta oztopo gaindiezinak izan ziren. Hala ere, espedizio guztiak bizirik itzuli ziren etxera. “Hildako lehoia baino, bizirik dagoen astoa nahiago izango zenuela pentsatu dut”, esan zion emazteari kapitain irlandarrak.

Urtebete eman zuen *Nimrod* itsasontziak izotzetan, ____1____. Espedizio luze horren testigantza ematen duten hainbat txabola ikus daitezke Antartikan oraindik ere. Horietako batean ezustea jaso zuten txabolok ikertzen zituzten Zeelanda Berriko arkeologoen 2006an. Izan ere, egurrezko lurzorua azpian, ____2____, *Mackinlay & Co* markakoak. Mende bateko izotz-geruza gogorak ez ziren utzi kaxak hartzen. Orain, berriz, whiskia Zeelanda Berrira eramateko erabakia hartu dute, eta datorren urteko urtarrilean, ____3____.

Shackletonen txabolaren azpian 25 kaxa daude, baina arkeologoen bi baino ez dituzte aterako, Antartika kudeatzen duten hamabi

herrialdeek adostutako akordio batek horretara behartzen ditu eta. Botilak Zeelanda Berrira eramateko asmoa dute whiskiaren inguruan hainbat ikerketa egiteko, Antartikako udan, eta hauek burututa, ____4____.

Haatik, *Whyte & Mackay* Eskoziako destilategiak, *McKinlay* marka partitzen duenak, desadostasuna agertu du eta whiskia eskatuko duela adierazi du. 1907ko espedizio hura hainbat enpresak babestu zuen, dirua zein hornigaiak emanda. *Mackinlay & Co* enpresak edaria eman zien abenturazaleei; beraz, ____5____.

Richard Paterson, *Whyte & Mackay*ren maisu dastatzailea, irrikan dago ____6____. “Kortxozko tapoiak egoera onean badaude, whiskiak hobera egingo zuen ehun urte hauetan” dio. Eta noski, horrela gertatuz gero, ____7____.

Botilen gaineko eskubideek eztabaida piztu dute, baina badago argitu barik jarraitzen duen misterioa: ____8____?

Berria, 2009ko azaroa (egokitua)

Jarri testu zatiak dagokien hutsunean. Idatzi erantzunak beheko laukian.

- A.- Eskoziako destilategiak uste du eskubide osoa duela whiskia berreskuratzeko
- B.- zergatik lurperatu zuten whiskia?
- C.- baina bi urte geroago amore eman zuen helmuga 180 kilometrora zuenean**
- D.- espedizio berri bat irtengo da izotza zulatzeke tresneria egokiarekin
- E.- propaganda kanpaina handia abian jartzeko asmoa dute
- F.- berriro Ingalaterrarako bidea hartu aurretik
- G.- urte luzez gorde dituen txabolara itzuliko dituzte
- H.- izotzetan harrapaturik, 25 kaxa whisky aurkitu zituzten
- I.- edaria esku artean edukitzeko eta whiskyaren egoera zein den aztertzeke

Aukeratu testu zatiak eta idatzi letrak laukietan, adibidean egiten den bezala.

0.- c	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-	8.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----